



OSERTZ ALDAY, BI BIZITZA ALDI BEREAN

Arraunlaria eta irakaslea den Osertz Alday, hondarribiarra den jendearentzako, lekeitiarrentzat eta Andoingo La Salle Berrozpeko ikasleentzat jarraitzeko eredu bikaina.

Arraun kirola gehienbat Euskal Herrian praktikatzen da, oro har, euskal kostaldean. Bere jatorria Britainia handia izan arren, XVII. mendearen inguruan, arrauna euskaldun kiroltzat hartzen da. Arrauna, jatorriz, antzinako Egipton, Grezian eta Erroman garraibide gisa erabiltzen zen. Baina, XVII. mendearen amaieran eta XVIII.aren hasiera artean, kirol bihurtu zen.

Erreportai honetan, banku finkoari erreparatuko diogu, Osertz Alday arraunlariaren bereizitasunari, hau da, erreportaje honen protagonistari. Aulki finkoan 13 arraunlari eta patroia daude. Parte-hartzaile bakoitzak pala bat du eta, traineruan, 7 alde batean kokatzen dira eta 6 kontrako aldean. Honetaz aparte, patroiak kontrolatzen du traineruaren norabidea. Lehiaketetan, arraunlariak 2.000 metroko distantzian lehiatzen dira, bakarka edo taldeka.



NORA URTASUN / IRATI ZALDUA / IKER RODRIGUEZ / ASIER BELOQUI

“Azken batean ia-ia errepidean bizi naizela esan dezaket”



47 urteko arraunlari hondarribiarrak, arraunlari, entrenatzaile eta irakasle lanak bateratu egin ditu bere bizitzan zehar. Hau zoramena! 22 urte daramatza arraunean jo eta ke eta, aldi berean, Andoingo La Salle Berrozpeko irakaslea da.

10 urte zituela arraunarekiko interesa azaldu eta konkretuki 26 urterekin hasi zen profesional mailako arraunean Hondarribin, eta 2016 urtean aldatu zen Isuntza arraun elkarte lekeitiarera. Familian hainbat arraunlari eduki ditu eta gertutik jarraitu ditu haien pausoak. Bere anaia Manex Alday ere arraunean dabil.

Eta hori gutxi balitz, lehiatzeaz gain, Isuntza klubeko 18 urteko arraunlariak ere entrenatzen ditu. Famatua izan arren, aitortzen du nahiko lotsatia dela, hala ere, bere jarraitzaileekin argazkiak ateratzea gustatzen zaio.

ZURETZAKO ZER ESAN NAHI DU ARRAUNAK?

Arrauna beste kirol guztiak bezalalako. Ezaugarri bereziak ditu, arrauna egiteko maila desberdinak aurki ditzakegu; adibidez, futboleko bezala, baina goi mailan egoteak eskakizun handiak, dieta hobe eta indarra edukitzea eskatzen du. Arraunean gozatzeko ez da beharrezkoa goi mailan egotea. Gainera, lehen aipatu bezala, ezinbestekoa da dieta ona izatea etekin handiak ateratzeko.

NOLAKOAK IZAN ZIREN ZURE HASIERAK ?

10 urte nituela etxetik ikusten hasi nintzen arrauna eta ikusi bezain pronto probatzea bururatu zitzaidan. Eta, nola ez, asko gustatu zitzaidan. 12 urte nituela estropada guztiak galtzen hasi ginen eta nazkatuta geundenez gogor eta serio entrenatzen hasia erabaki genuen zerbait lortu nahi bagenuen.

ZURE FAMILAKO NORBAITEK EGIN IZAN DU EDO EGITEN DU ARRAUNA?

Bai, nire ama San Juandarra da eta aita erreizildarra. Amaren aldetik datorkit arraunlaria izatearena eta, gainera, aitona ere San Juandarra zenez, asko disfrutatzen zuen arraunean. Azkenean, amak animatu gintuen arraun munduan sartzeri nire anaia Manexi eta niri.

OSPEA NOLA ERAMATEN DUZU?

Ez da futboleko bezalako fama. Herri batzuetan, momentu konkretuetan, argazkiak edo beste eskatzen dizkirate. Kritikak entzuten ere ikasi dut. Azkenean, aipatutako gauzak kirolaren parte dira.

ALDI BEREAN ARRAUNLARI ETA IRAKASLE IZATEA NOLA DARAMAZU?

Egia esan, biak bateratzea ez da batere erraza, irakaslea izatea psikologikoki nekagarria da eta arraunak, batzuetan, egunerokotik deskonektatzen laguntzen dit. Nekatuta egon arren, irakasle lana eta arrauna ondo daramatzat.

ARRAUNLARI ETA IRAKASLEA IZATEAZ APARTE, NOLA KONTSIDERATZEN ZARA PERTSONALKI?

Nahiko lotsatia naiz, ez naiz oso irekia. Nire lana konpromezu handiarekin hartzen dut eta den-dena ondo egiten saiatzen naiz. Uste dut oso exijentea naizela nire buruarekin eta nire hobe beharrez jakin behar dut ez izaten hain zorrotza nire buruarekin. Ez naiz bakardadean sentitzen, baina bakarrik nagoenean, asko disfrutatzen dut.

NON BIZI ZARA?

Nik lana Andoainen eta arrauna, orain, Lekeition egiten ditut. Astean hainbat alditan ibiltzen nintzen Hondarribin, Lekeition eta Andoainen, baina konturatu nintzen oso nekagarria zela distantzia horiek egitea entrenamenduaren ostean. Geroztik, Lekeiton bizi naiz. Azken batean, errepidean bizi naizela esan dezaket.

FORMAN EGOTEKO DIETA ZEHATZ BAT JARRAITU BEHAR DUZU?

Ezinbestekoa da dieta ona edukitzea, dieta ona baduzu, lan bikaina egingo duzu. Honek ere entrenamenduetan eta lasterketetan errendimendu ona edukitzea dakar, azkenean, kirol guztietan dieta mantentzea beharrezkoa da.

ZER MOTATAKO ENTRENAMENDUA ERABILTZEN DUZU? ETA ASTEAN ZEHAR ZENBAT ALDIZ ENTRENATZEN DUZU?

Normalean, denboraldiko entrenamenduak ekainetik abuztura izaten dira eta puntu optimoetara iristeko entrenamenduak egiten ditugu. Urtean zehar, lehorreko entrenamendu asko egiten ditugu, hori bai, uretan ere batzutan entrenamenduak dauzkagu. Hala ere, konpetizioetara hurbiltzen garen heinean uretan egiten ditugu entrenamendu ia guztiak.

ALTUERAK ETA PISUAK BALDINTZATZEN DUTE ARRAUNLARI PROFESIONALA IZATEA?

Bai, arraunean fisikoak garrantzi handia dauka, indar fisiko hauen artean positiboa eta negatiboa daude. Zure pisuaren arabera, bi indar hauek agertuko dira. Bestalde, geroz eta altuago, palanka handiagoa duzu, baina asko pisatzen baduzu orduan eta indar negatibo gehiago daukazu. Horregatik, datu guzti hauek oso garrantzitsuak dira eta beti kontutan hartzen dira.

ZENBAT GARAIPEN EDO TITULU IRABAZI DITUZU?

Arraunlari naizenetik, hainbat titulu irabazi ditut. Galtzen ikasi dut eta honek ekipoko guztiak indartzen gaitu. Irabazi ditudan txapelketak ondorengoak dira: Espainiako txapelketa, Euskadiko Liga 3 aldiz, Euskadiko txapelketa, estropadak, Kontxako lasterketak... Efortzu askoren ondorengo lorpenak dira guzti hauek.

ZER USTEKABEKO GAUZA GERTATU ZAIZKIZU ARRAUNEAN?

Egun batean, marrazo bat agertu zen entrenamendu batean zehar. Hasieran ez genekien marrazoa ala izurdea zen, baina berrietan ziurtatu ziguten marrazoa zela. Beste momentu ahaztezin bat izurdeak traineruaren inguruan igeri joan zirenean izan zen. Gainera, ustegabeko txarrak ere eduki ditugu. Haien artean, olatu handi eta indartsuak gure kontra etorri zirenean. Zalantzarik gabe, une onenetako bat hiltzeko zorian zegoen txori baten bizitza salbatu genuenean izan zen.

Elkarrizketa guztia klik batean



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN